

# **IKERKETAKO ETA TRANSFERENTZIAKO ETIKA BATZORDEA**

**IKERKETAKO ETIKA BATZORDEAK EGOKITASUN ETIKOAREN  
TXOSTENAK EGITEKO PROZEDURA**

# IKERKETAKO ETIKA BATZORDEAK EGOKITASUN ETIKOAREN TXOSTENAK EGITEKO PROZEDURA

## Proiektuak ebaluatzeko aurkeztea

Ikerketa-proiektuak ebaluatzeko eta egokitasun-txostenak egiteko betebeharrari erantzunez, kasuan kasuko proiektuaren ikertzaile erantzuleek behar bezala betetako ebaluazio-eskaera aurkeztu beharko diote Ikerketako Etika Batzordeari (ikus 1. eranskina), bai eta proiektuaren dokumentazioa ere, hurrengo puntuan jaso denez.

Doktorego-tesien proiektuak zuzendariak aurkeztu beharko ditu, eta hura arduratuko da eskaera aurkeztu eta sinatzeaz.

Halaber, Ikerketako Etika Batzordeak ebaluatu beharko ditu aldizkari espezializatuetan argitaratu behar direlako metodologiaren egokitasun etikoaren txostena behar duten ikerketa-artikulu edo -lanak.

## Egokitasun-txostenak egiteko prozedura

- Ebaluazio-eskaerarekin batera, egokitasun-txostena egin nahi zaion proiektuaren memoria laburra ere aurkeztu beharko da; informazio hau jaso beharko du gutxienez:
  - proiektuaren helburuak
  - proposatutako metodologia eta teknikak
  - lan-plana; parte hartuko duten pertsonengan aurreikusten den inpaktua
  - espero diren arriskuak
  - lortutako datu pertsonalak proiektua amaitutakoan kudeatzeko prozeduraren azalpena
  - proiektuan parte hartuko dutenentzat aurreikusi diren konpentsazioak; halakorik ez badago, jaso egin beharko da proiektuaren memorian
  - boluntarioentzat izenpetutako aseguruaren zehaztapena, aseguru beharrezkoa izanez gero
- Bestalde, honako hauek ere aurkeztu beharko dira dokumentazioan:
  - proiektuan parte hartuko dutenak informatzeko eta haien baimena jasotzeko dokumentua
  - izaera pertsonaleko datuak babestearen alorreko inpaktuaren ebaluazioa, batez ere osasun publikoko ikerketarako eta, zehazki, ikerketa biomedikorako erabiltzen direnean
  - proiektuaren arduradunak (edo, dagokionean, tesiaren zuzendariak) sinatutako konpromisoa, datu pertsonalen konfidentziasunari eta horiei bai proiektuan zehar eta bai ondoren (amaitutakoan) emango zaien tratamenduari —akademikoa edo hedapen zientifikorakoa— buruz

- Proiektuaren arduradunak posta elektronikoz bidali beharko dizkio bi dokumentuak (ebaluazio-eskaera eta proiektuaren dokumentazioa) IEBko idazkariari, Ikerketako Etika Batzordeak egokitasun etikoaren txostena eman dezan.
- **Ebaluatzea, kalifikatzea eta egokitasun-testak ematea**
- IEBk ebaluatutako ikerketa-proiektuak honela sailkatuko dira, dokumentazioa aztertu ondoren:
  - a) aldeko txostena
  - b) baldintzatutako aldeko txostena
  - d) aurkako txostena

Txostena **aldekoa** denean, lehendakariaren ordezkarietan Ikerketako Etika Batzordeko idazkariak egin eta sinatuko ditu egokitasun etikoaren txostenak, proiektuaren arduradunari bidaltzeko.

Ikerketa-proiektuak edo -lanak irizpen positiboa jasotzen duenean, baina akats formalen bat konpontzeko edo galdatzekoak diren eskakizunak bete dituela erakusten duen aparteko agiriren bat aurkezteko baldintza ezartzen zaionean, **baldintzatutako aldeko** txostena emango da. Kasu horretan, akatsa konpontzeko edo aparteko agiria ekartzeko eskatuko dio Ikerketako Etika Batzordeak ikerketaren arduradunari.

Txostena **aurkakoa** denean, arrazoiak eman beharko dira.

- Proiektua beste erakunde batekin batera egitekoa bada, erakundeon etika-batzordeek proiektuari buruz emandako ebazpenak erantsi beharko dira.
- Egoki irizten zaionean, kanpoko adituengana jo ahal izango da, proiektuaren etika ebaluatzeko.
- Proiektuaren arduradunak eskaera aurkeztu ondoren, Etika Batzordeak hilabeteko epea izango du, asko jota, txostena emateko.